

izadia eta aurrerapena

Joan zaigun 1974 urtean zehar, nuklear indar etxe, harrorio edo petrolioa, kutsadura eta.-ez iritzi eta kezka franko entzun eta irakur ahal izan dugu. Baita ere, eta batipat mendizaleei loturik, Izadiaren urtea izendatu zen. Aipaturiko arazo hoik hor daude, erabaki, eratzunik gabe. Areago, arazo hoiei erantzun zehatz eta jatorrak emateko gure ahalmenak ez due-
la indarrrik esan genezake. Egitura edo estruktura osatzen duen erakundee-
tan datza indar handiena. Halata guzti, ezin ixil egon. Nire lantxo honen
funtsa, axaletik bederen, euskal mendiaren egoera salatzea duzu.

Baserri ekonomiaren beherakadak eraginik eta ekonomi atalak baldin-
tzaturik, pagadi, arizti eta gaztinadi basoek soiltzea eta bere ordeztu pinua
sartzea, goitik-behera datorkigun iritzia da. Iritzi honek dio: Pinua sartzea
onuragarri da euskal mendi eta basoetarako. Baina, beste batzuk diotenez,
lurrak lehen zuen kimua, irentsi eta zurrupatu besterik ez omendu egiten.
Pinudi hauk soildu ondoren lar eta hasun besterik ez erne eta itsatsi.

Kontuan hartzeko dela uste dut euskal herrietan egiten ari direnak. Hi-
rigintza edo urbanismo tajuz eta zentzu baten ordeztu (lekuko berezitasu-
nak kontuan edukiaz funtzionalkeri mordoilo batetan erori gara. Berdin men-
dian ere: Basoak soildu, bideak mendi gailurretaraino eta mendietan zehar
ireiki, etxeak edozein eratara egin, hesiz eta etsituraz josi e.a. Egoera honek
zera adierazten du: Euskal mendien eta herrien arruntasuna, txirotasuna
eta zabarkeria. Aurrerapenak muga batzuk baditu, itxura edo estetikatik
kanpo, eta ene iritzi, muga hoik gairitu direlakoan nago.

Frogantza gixa, hona hemen adibide batzuk:

—Durangoko mendikatean: San Antonio eleizatik ebaki berri duten
bidea Urkiolamendi zehar Zabalaundi iturriraino. Benetan, batek ez daki
zertarako bide hau, basorik ez baitago.

—Arantzazutik Katabera zehar Urbiraino egina duen bidea. Oraindik
motorrak eta Land Rower batzuk besterik ez dira igotzen. Bereala, Urbia
berebidez josita dugu.


—Guarda etxetik Pagomariraino irekia dago bidea. Hemendik, Igaratza, bidea ebakirik dago. Gaur, zenbait berebil ikus ditzazkegu Igaratzan.

—Gurata - Etxetik Artxueta tontorrera egina duen bidea. Noski, mendian ibiltzeko... berebitez.

—Larraiztik Txindokiko langaraino bidea ebakita dago. Bide hau Abaltzizketako udaletxeak zuen baso pinudia soiltzeko egin zen. Baita ere, Larraiztik Amezetako bidea berdintzeko, Txindokiruntz ezker maldako lurrak hartu ziren. Egun, egoera tamala, negargarria agertzen da: Mendi honen malda lurrikara batzuen antza dute. Egunetik egunera mendia behera datorrela dirudi. Pinudietan, han-hemen ebakirik dauden bideak:

Legazpiko Korosti mendikoek; Katabera basoetarakoek; Murumendi-Beizama ingurukoek; Ataungo mendikoek; Arrate eta Urko inguruan; Gorla inguruan; Izazpi basoetan e.a. Baso hauetan sarturik, batek ez daki norra jo, zer bide har.

Aldiz, azken urte hauetan, «aste bukaerak mendian igarotzeko» etxeak eta aterpeak aski ugalduta direla garbi dago. Aterpeak egitea ongi dago baina, Igaratzako, Arantzazu, Aiako harrietako inguruan eta beste hainbat lekuetan egin diren «etxe xarmant eta polit» hoiek mendizaletasuna ugaltzeko ote dira? Ene ustez, oker ez banago behintzat, mendia denona dela entzuna dut, eta ez dakit, etxe hauk egitea eta bere inguruan hesiak jartzeko eskubidea nondik datorkien. Hor-hemen hesiak eta etxiturak jartzeko ohitura «hau nerea da adieraziaz» aski zabalduta da.



Igaratza bideaz eta «pistaz». Baita ere mendizaletasuna itsasteko «aterpeak». (Foto: Juanjo Múgica).



Pagomari inguturik Igaratzaraino ebakia den bidea, Igaratza inguruan.
(Foto: Juanjo Múgica).

Ongi dago aurrerapena, baina hitz honen izenean egiten diren astakeriak, eta zoritxarrez, egingo direnak, etorkizun goibela eta iluna dakar. Dakigunez, azken batzarrean Euskal Mendiko Elkargoak honetaz mintzo zela; Arañzadi elkarteak Izadiaren osotasunaren alde egiten ari den lan joria. Denon lana beharrezkoa dugu —eta baldin ez da aski izango—. Nahiz erakundeek erabakiak zuzendu, mendizale eta elkargo guztien kezka, burutapenak eta lanak beharrezkoak ditugu erazo honetzaz jabetzearren, gutxienik, iritzi eta ekintza jator batetara irixteko. Zeren, plangintza orokor eta zabal bat ametsa litzake, ez baitugu, oraingoz, egoera konkretoan, euskal egiturarik, gizarte maila guztiak babes eta antola ahal daitekeenik.

Bitartean, ongi legoke Nafarroako Aldundiak edo Diputazioak ekologi orekaz edo ekilibrioaz duen ardura eta kezka gure hartean itsatsi eta beharra ikusiko balitz. Nafarroako Aldundiak, oraindik behintzat, Lege Zahar edo Foruek zituzten eskubiden bat, Itun Ekonomi edo Konziertoa, bere gain ditu. Batzuk diotenez foruak atzerakoiak dira?... eta noski, horregatik, Gipuzkoan eta Bizkaian, aurrerakoi eta azkarrak, nonbait gu, ez dugu horrelakorik. Atzerakoi den hori ba genduke ere...

RESUMEN. Este bello artículo, nos habla de los destrozos que está causando a nuestras montañas, la apertura de tantas pistas, en Aralar, Urbia, Urkiola, etc., la mayor de las veces, inútiles.